

Udalerri euskaldunen garapena aztertuko du beka batek

Uemak Iñaki Arregi beka sortu du, udalerri euskaldunen garapena aztertzeko eta, horrekin batera, euskal soziolinguistikaren inguruko jakintza areagotzeko helburuz // 3

Festak parekide egiteko parte hartze prozesuari ekingo diote

Zizurkilgo Udalak, Farapi kooperatibaren eskutik, parte hartze prozesua abiaraziko du, datorren ekainaren 18an; udazkenean amaituko dute prozesua // 4

Oihana Iguaranek jaso du Mintzolako ikerketa kontratua

EHUn ariko da proiektua garatzen eta, zehazki, bertso bidezko diskurtsoak duen agenda izango du ikergai; saioak eta elkarrizketak baliatuko ditu lan tresnatzat // 5



SAN ESTEBAN KONPONKETAK AUZORA

Ekaineko bigarren hamabostaldian hainbat konponketa eta eraberritze lan abiaraziko ditu, Tolosako Udalak, San Esteban auzoan; gerora, Plan Orokorren aldaketa k zehaztuko du auzoaren norabidea // 2

JOSU ARTUTXA DORRONSORO

galtzaundi
taberna

☎ 691 080 726
San Bartolome plaza
IBARRA

IBARRAN EROSTEAK SARIA DAUKA

Kanpainan atxikitutako dendetan
gastatzeko 100€ko hamar sari

IBARRA USTIA KANALA barraho

San Esteban auzoan hainbat konponketa egingo ditu udalak

Ekainaren bigarren hamabostaldian hasiko dira eraberritze lanekin, eta hilabeteko epean egitea aurreikusi dute; guztira, 48.253 euroko inbertsioa egingo du udalak

Josu Artutxa Dorronsoro

San Estebanen bizi diren herritarrek urteak daramatzate euren auzoaren itxura berritzeko proposamenak egiten. 2017an, lehen eraberritze lanak osatu zituzten. Egoera sozioekonomikoak eta herritarren beharrak, ordea, aldatuz joan dira. Orain, auzoaren garapena egungo errealitatera egokituko dute, etorkizun hurbilean egikaritu ahal izateko.

Hain zuzen, hil honen bigarren hamabostaldian, zoladura, espaloi, alkorke, argiztapen eta hiri-altzarien egoera hobetuko da. Batetik, kale nagusian –San Joan kalean–, 138 metro karratu espaloi eraberritu eta txukunduko dituzte, egungo ezaugarriak mantenduz, eta espaloietako alkorkeak pabimentu drenantez beteko dituzte. Bestetik, anbulatorioko parkingaren sarrera, Zuberoa etxe multzoaren eta auto kontzesionarioko sarbidea asfaltatuko dituzte. Azken eremu horretan, gainera, argiztapena berrituko dute, bertan dagoen elektrizitate postea eraitsiz. Azkenik, hiri altzariak berrituko dituzte, 14 banku ordezkatzuz, parkeko egurrezko baranda konponduz, hormigoizko hesiak lore eta landarez ordezkatzuz, eta Ferialekuko aparkalekuaren sare metalikoa berrituz.

Guztira 48.253 euroko inbertsioa egingo du udalak, eta lanek hilabete irautea aurreikusi dute.



Parkearen eta auto kontzesionarioaren eremua ere eraberrituko dute. J.A.

Olatz Peon jarduneko alkateak azaldu duenez, «helburua, espazio publikoa berregokitzea» da: «Auzoaren hirigintza egoerak mantentze lanak egitea eskatzen du eta, etxebizitza berriak eraikitzeaz harago, oinezkoentzako egokitua eta kulturalki bizia izango den eremua eskainiko dugu».

AUZO ATSEGINAGOA

Martxoan, eremu horri eragiten dion Plan Orokorren aldaketaren prozedurari ekin zioten. Hori dela eta, auzoaren azterketa sakonagoa eta zehatzagoa osatzea da helburua, auzotar eta eragileekin elkarlanean. Udaletik diotenez, «auzoaren garapena fasez fase egitea ezinbestekoa da, bideragarritasun ekonomikoa bermatze aldera». Diagnostiko horrek kontuan hartuko ditu jasangarritasuna, mugikortasuna eta

genero ikuspegia. Eremu atseginagoa bihurtzea nahi dute, herriko erdigunearekin duen konezioa hobetuz, trafiko eremua gutxituz eta oinezkoen erosotasuna eta segurtasuna bermatuz.

Aldi berean, garraio zerbitzu publikoak hobetu eta aparkalekuak berrantolatuko dituzte. Kultur arloa ere mantendu eta sustatuko dute, Bonbereneak bere jarduerak aurrera eramateko beharrezko eremua aurreikusiz, Ferialekua handitu eta hobetzeko bideak aztertuz eta jarduei gehiago sortzeko aukerak sortuz. Azkenik, beharrezko etxebizitza kopurua zehaztuko dute, babes ofizialekoen eta alokairu sozialekoen kopurua aurreikusiz. Hortaz, auzoa biziberritzearen prozesu osoak 17 hilabete inguru irautea aurreikusi dute.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Komertziala. Landanet enpresan. Baldintza ezin hobeak: lan-kontrata, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresan. Bidali curriculumak info@landanet.net-era edo deitu 943 318 606 zenbakira.
Zerbitzaria. Ikatzatuberna lanaldi osoan lan egiteko zerbitzari bila daibil. Interesatuak, bidali curriculumak ikatzatuberna2003@gmail.com helbidera edo deitu 625 70 48 85 zenbakira.



Berehala agortu ziren Izpiren lehen 300 kapak eta antifazak. CHROMA BRANDING

Energiaren superheroiek bat egingo dute Zumardi Handian

Energia aurrezteko kanpaina berri bat abian jarri zuten martxoan, eta bihar izango da amaiera festa, jolasekin

Josu Artutxa Dorronsoro

Nazioarteko kezka nagusietako bat da ingurumen egoera, batez ere, energiaren alorrean. Eskualdeko gaztetxoek, kontzientzia-zio bidean, duela hiru hilabete ekin zioten energia aurrezteko kanpainari. Horretarako, Tolosaldea Garatzen garapen agentziak lanketa berezia egin du.

Azken hiruhilekoan, aurrezteko erronkak proposatuz, ekintza ugari burutu dituzte, *Energiaren superheroia izateko gida* erabiliz. Izpi superheroien laguntzaz, egunerokotasunean energia aurrezteko urratsak eman dituzte. Horrela, puntuak lortu, eta superheroien taldera batzeko aukera izan dute.

Kanpainak arrakasta handia izan du. Eskualdeko herri guztietako ikasleei banatu zieten liburuxka, eta segituan agortu zituzten Izpi superheroien lehen 300 kapa eta antifazak. Ondorioz, gehiago eskatu behar izan zituzten. «Haurren konpromiso mailari balioa eman, eta egindako ahalegina zoriondu nahi dugu», diote garapen agentzietatik. Superheroi egiteko eta gidaren bertsio digitala eskuratzeko aukera dago, oraindik, tolosaldeagaratzen.eus webgunean.

SUPERHEROIEI I. TOPAKETA

Atzo ospatu zen Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Hain justu,

ospakizun hori baliatuko dute, kanpainarekin amaitzeko. Lehenik eta behin, atzo, familiarterako auzolana eta hainbat tailer egin zituzten Zizurkilen. Adunako kultur etxean, berriz, birgaitze-ari buruzko saio praktikoa.

Bestetik, bihar, Energiaren Superheroien I. Topaketa ospatuko dute Zumardi Handian, Tolosaldea Garatzenek antolatuta. Jolasak eta frogak egingo dituzte eta, ondoren, superheroi guztiekin argazki erraldoi bat aterako dute. Antolatzaileek Izpiren kapa eta antifazarekin bertaratzeko eskatu diete eskualdeko ikasleei. Biharkoa, ordea, ez da azken ekitaldia izango. Igandean, mendi irteera egingo dute Adunan.

EGITARAUA

Ekainak 7, ostirala

17:30. Ginkana eta jolasak, Intujalren eskutik.

18:30. Merienda eta superheroien argazki erraldoia.

19:00. Ekitaldiaren amaiera.

**Eguraldi txarra eginez gero, bertan behera geldituko da.*

Ekainak 9, igandea

9:30–11:30. Adunako biodibertsitatea eta fauna ezagutzeko mendi irteera, herriko plazatik abiatuta.

Arropa eta oinetako erosak, ura eta prismatikoak eramatea gomendatzen dute. Gehienez, 30 lagun. Izena aldez aurretik eman behar da.



Udalerri euskaldunen garapena aztertzeke beka sortu du Uemak

Iñaki Arregi bekak bi lan sarituko ditu; garapena aztertzeaz gain, bekak ikerketa sustatzeko eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko izango dira

Eneritz Maiz Etxarri

Iñaki Arregi bekaren lehen deialdiarekin udalerri euskaldunak garatzeko proposamen zehatzak eta bideragarriak bildu nahi dituzte. Uemak sortu du beka, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailbuordetzaren babesa du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUrekin elkarlanean osatu dute.

Uematik diote, «udalerri euskaldunak garatzea» dela euskararen arnaguneei sendo eusteko modu «eraginkorrena». Eta udalerri euskaldunak garatzeko adibide praktikoak aztertu eta abiarazi nahi dituzte agintaldi berrian.

Iaz, Uema, Kontseilua, Udako Euskal Unibertsitatea eta Gaindegia elkartu ziren, eta hainbat aditurekin batera aztertuz, udalerri euskaldunak garatzeko hainbat irizpide eta oinarri proposatu zituzten: «Oinarri horiek bideratzeko egitasmo zehatzak abiaraztea da orain asmoa, udalerri euskaldunak garatzeko eta arnaguneei bizirik eusteko».

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute.



Proposamenak uztailaren 24rako aurkeztu beharko dira, eta beka bakoitza 5.000 euroekin sarituko da. ATARIA

Proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea uztailaren 24ra bitarte jarri dute, eta epaimahaiak irailaren 20an emango du jakitera, zeintzuk diren diruz lagunduko dituzten bi ikerlanak. Egun horretatik aurrera, saridunek bederatzi hilabeteko epea izango dute laginak garatzeko eta ikerlanak aurkezteko. Eta, zehaztu dutenez, amaitzean, lanak gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko ditu.

Lehen deialdi honetan lan bakoitza 5.000 euroekin sarituko dute.

IÑAKI ARREGI GOGOAN

2010ean hil zen Iñaki Arregi Ihartza, eta Uemako koordinatzailea izan zen hil arte. Uematik azpimarratu dute: «Ederki zekien Uemaren nondik norakoak eta helburuak gainontzekoei helarazten, eta sorreratik Uemaren arima izan zen».

Euskaltzale sutsua izan zen Arregi eta, Euskal Herri euskalduna lortzeko bidean, ezinbestekoa iruditzen zitzaion, «Uemaren lana eta lurgunea zabaltzea».

Udalerri euskaldunen garapenarekin ez ezik, soziolinguistika edukiak zabaltzearekin eta udalerri euskaldunei buruzko ikerketarekin lotura estua izango duenez, Uemak aurreratu du berak antolatutako jardunaldietan ezagutaraziko dituela bi lanak.

Sutarrik ikasturte amaierako emanaldia egingo du, bihar

E. Maiz Alegia

Bihar, hilak 7, Alegiako Sutarri dantza taldeak ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du. 22:00etan, Alegiako Elorri pilotalekuan eskainiko dute ikuskitzuna.

Ehun dantzari inguru igoko dira oholtza gainera, urtean zehar ikasi duten hori herriarrei erakusteko asmoarekin. «Gure sustraia datozen dantzez aparte, garaikideak diren dantzak ere ikusi ahal izango dituzte», azpimarratu dute Sutarri dantza taldeak.

Doan izango da sarrera. Sutarriko kideek herriar guztiak gonbidatu nahi dituzte emanaldia ikustera.

UDAKO ZINEMA

Ekainaren 14an, ostiralean, udako zine saioa eskainiko dute. Kasu honetan, *Dantza* pelikula ikusteko aukera izango da, 22:00etan, Erbeta pilotalekuan.

Filma bizitzaren zikloari buruzko istorio bat da, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragaitea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa da.

Nahia Ansorenaren kartelak iragarriko ditu Alegiako festak

Festa batzordeak aukeratu ditu Karmengo jaietarako kartela, logoa eta kontrazaleko irudia

E. Maiz Alegia

Ez dira egun asko falta Alegiako festetarako, eta festa usaina zabaltzen joateko aukeratu dituzte festak iragarriko dituen kartela, logoa eta baita egitarauaren kontrazalean joango den irudia ere.

Azken urteetan egiten duten moduan, festa batzordeak jaien egitarauko azala izango den irudia aukeratzeko lehiaketa bat

egin du. Denen artetik bat aukeratzeko bozketa sistema erabili dute. Maiatzeko azken astean herriarrek gehien gustatzen zitzaien kartelaren aldeko botoa emateko aukera izan dute kultur etxean. Ikusgai egon dira, eta Nahia Ansorenaren lana izan da bozkatuena. «49 boto jaso ditu Ansorenaren lanak, bigarren geratu denak baino lau gehiago. Erakusgai ziren beste bi lanek launa boto jaso dituzte eta, balio gabeak kontuan izanda, guztira 106 boto jaso ditugu», azaldu dute festa batzordetik.

Botoa eman dutenen artean



Karmen jaietako kartela. ATARIA

ardo botila baten zozketa egin dute, eta Paula Valor izan da irabazlea.

Egitarauko kontrazalean agertzen den marrazkia eskolako ikasleek egindakoen artetik aukeratu da, eta aurten Oier Orejak egindakoa aukeratu dute. Azkenik, jaien bueltan egiten diren kamisetetan zein jaietako buruzko karteletan agertuko den logoa Ziortza Artolak egingo da.

Festa batzordeak eskerrak eman nahi dizkie lanak aurkeztu dituzten guztiei, eta baita bozketan parte hartu dutenei ere.

BALKOI ETA LORATEGIAK

Festen aitzakian Balkoi eta Lorategi Dotoreenaren lehiaketa egingo dute aurten ere. Festa batzordeak dio balkoiak eta leihoak zaintzeko ohitura berreskuratzeko helburuarekin egiten dela

lehiaketa hori, eta horrek herriaren itxurari eta ingurumenari eragiten dion mesedeari balioa ematea da beste helburua». Epaimahaiko kideak herriko kaleetan ibiliko dira ekainaren 17tik 23ra eta, modu horretan, herriko leiho eta balkoi guztiak aztertuko dituzte.

Epaimahaiko kideak adituak diren pertsonak izango dira. Hainbat irizpide izango dituzte kontuan: kolorea, landareen aniztasuna, estetika, konbinaketa eta txukuntasuna. Erabakiaren berri Alegiako jaietan emango dute, uztailaren 14an, igandean, hain zuzen ere.

Maila bakoitzeko irabazleek 150 euroko opari txartela jasoko dute herriko saltokietan kontsumitzeko. Hori bai, sarituek egunean bertan jaso beharko dute saria.



Iaz, Elbarrenako festetako gazte egunean ateratako irudia. ANE URKOLA

Parekideago izango dira

Zizurkilgo Udalak prozesu parte hartzailea jarriko du abian, herriko jaiak berdinzaleagoak izateko; herriko eragile eta norbanakoak bilduko dituzte lau saiotan

Jon Miranda Zizurkil

Duela bi urte jaietako indarkeria matxista kasuetarako protokoloa egin zuten Zizurkil. Herriko jaiak berdinzaleak izateko bidean urrats bat izan zen hura, eta orain bigarrena abiatuko dute. Ekainaren 18an hasi eta azarora bitarte, Farapi kooperatibak gidatutako parte hartze prozesua egingo dute, jaiak genero ikuspegitik aztertzea inportantea dela barneratzeko.

Lau saio izango dira eta, prozesuak irauten duen bitartean herriko bi jai nagusiak ospatzeak, ahalbidetuko du festa horiek berdintasunaren ikuspegitik aztertzea. Herrigunean abuztua erdialdean eta Elbarrenan iraila hasieran izango dira festak. Farapi kooperatibako kideek aipatu dutenez, ospakizunen atzean antolakuntza lan handia dago, eta prestaketa eremu horietan emakumeen parte hartzea edo parte hartze eza ere ebaluatuko dute. «Hala ere, antolakuntza mistoa izateak ez du jaia parekideago izango denik bermatzen».

Jaiek gizarte ordena modu trinko batean erakusten dute eta orden hori zilegiztatzeko tresna dira, horregatik abiatu nahi dute jaien inguruko hausnarketa Zizurkil. Edukiak, ekintzak, protagonistak eta, oro har, jaien egitura bera aztertuko dute lau saio horietan. Kooperatibaren esanetan, «jaietan emakumeen parte hartzeko baldintzak hobetzen badira, honek ondorio zuzenak izango ditu herriko parte hartze orokorrean, baita bizitza sozialean ere». Izan ere, ideia eta baloreen munduarekin lotuta daude jaiak, herriaren nortasunarekin, gizarte egiturarekin eta genero sistemekin.

Prozesu parte hartzailea gidatuko dutenek argi dute, festak genero indarkeria egitura batean kokatzen direla eta horrek jaiak aukera berdintasunean bizitzeko aukera mugatzen diela ema-

LAU SAIO

Ekainak 18, asteartea

18:30. Plazida Otaño liburutegiko balio anitzeko gelan, jaiak begiratzeko gakoak emango dira eta beste leku batzuetako jaiak aztertuko dira.

Irailak 24, asteartea

18:30. Sentsibilizazioa landuko da eta Zizurkilgo jaien errealitatera hurbilduko dira Plazida Otaño liburutegiko balio anitzeko gelan.

Urriak 22, asteartea

18:30. Jaietako irizpide orokorrak identifikatzen saiatuko dira Plazida Otaño liburutegiko balio anitzeko gelan.

Azaroak 12, asteartea

18:30. Plazida Otaño liburutegiko balio anitzeko gelan, sentsibilizazioan sakontzeaz gain, jaiak berdinzaleagoak bihurtzeko irizpideak maila-mikrora jaisteko saiakera egingo da.

kumeei. «Eraso sexualak, sexu jazarpenak, ukitzeak, hitz zikinak... Diagnostikoan kontuan hartu behar dira».

Beraz, herriko jaietan gertatzen diren genero indarkeria egoerak ezagutu eta aztertzeaz gainera, indarkeria hori bultzatzen elementuez pentsatuko dute prozesuan. Horrekin batera, emakumeen parte hartzea laguntzen duten elementuak identifikatzen hasiko dira, eta maskulinitate eta feminitate tradizionala erreproduzitzeko existitzen diren elementuak ezagutu eta jaietan beharrezkoak ote diren baloratuko dute parte hartzaileek.

Emaizta urtea amaitzearekin batera jasoko dute. Herritarrak, teknikariak, ordezkari politikoak eta jai batzordeetako eragileak berdintasunaren beharraz formatu eta kontzientzatuko dira bidean, eta amaieran, jai berdinzaleagoak izateko irizpideak zehaztuko dituzte.

Intsektuen mundua ezagutzeko irteera izango da larunbatean

ALKIZA // Fagus Alkiza interpretazio zentroak familia eta lagun giroan egiteko ibilbidea prestatu du larunbaterako. Alkizarrentzat dohainik izango da, baita 12 urtez azpiko haur guztientzat ere. Helduek lau euro ordaindu beharko dute. Aurrez beharrezkoa da izena ematea, kultura@alkiza.eus helbidean. Xanti Pagolak gidatuko du saioa.

Igandean Adunako biodibertsitatea ezagutzeko irteera

ADUNA // Ekainaren 9an, 09:30etik 11:30era izango da irteera, eta parte hartzeko aurrez izena eman beharko da, ekainaren 7a baino lehen, udala@aduna.eus helbidean edo 943 69 25 71 telefonoan. Adunako Udalak eta Aranzadi zientzia elkarteak Adunan dagoen aniztasun biologikoa ezagutarazteko mendi irteera izango da.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com



«Errespetuz, poliki eta inor mindu gabe, baina aldaketak eman behar dira»

AINHOA LARREA UDAL TEKNIKARIA

Egindako lanaren emaitza da orain martxan jarriko duten prozesu parte hartzailea, jai berdinzaleago batzuk izateko gizarteak agertu duen beharrari erantzuten diona.

Zertara dator orain prozesu parte hartzaile hau?

Azkeneko zortzi urte hauetan udalak apustua eginga du berdintasunaren gaia mahai gainean jartzeko. Agendan sartu da. 5.000 biztanletik beherako herrirentzako Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Sailak martxan duen Berdinbidean programan parte hartzen dugu. Udalean berdintasunak bere lekua hartu du. Aurrekontuan diru sail bat gordetzen da, plangintza bat dugu, Berdinbideaneko parte gara... Egonkortuta daukagu dagoeneko esparru hau udalean.

Orain arte zein lan ildo zehatzu duzue?

Adibidez, gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko ildo martxan dugu, eta Gaztezulon presente dagoen gaia da. Bestalde, lanketa horren ondorioz sortu dira liburutegiko Emakumeen Txokoa eta jabekuntza saioak.

Ez duzue herrian berdintasun teknikaririk.

Baina horrek abantaila bat ere badu. Hainbestetan aipatzen den zeharkakotasuna naturalki ematen da hemen. Sail guztiak elkarrekin harremanetan daudenez, gaiak proposatzen direnean, perspektiba guztiak kontuan hartzen dira.

Mugimendu feministak azken aldian agertu duen indarrak bultzatu al du lanketa?

Bai, bultzatu du neurri batean. Duela zortzi urte hasi ginen honekin lanean. Gure lehen lan ildo jabekuntzarena izan zen. Momentu hartan Zizurkilen bazegoen talde bat, Donostian, Medeaken eskutik, formazioak egiten zituen. Apustua egin genuen eta Medeakekoak hona ekarri genituen, emakume horiek herrian bertan formazioarekin jarraitu ahal izan zezaten. Gazte hauek heltzen joan dira, eta horietako batzuk Oporretan Euskaraz-eko begirale bihurtu dira, honenbestez, berdintasun ikuspegi hori txertatu dute gazteekin. Soka bat da, kate bat, transmisioa bermatzen dugu horrela, eta hor dago aberastasuna.

Orain da ekiteko unea?

Azken bi urteetan Martxoaren 8ak garrantzitsuak izan dira Aiztondon, oso indartsuak. Baina ez dira egun horiek bakarrik izan, atzetik badago lanketa bat eta horrek fruituak eman ditu. Sakonagoak dira lanketa horiek eta denboran iraunkorragoak. Berdinbidean esan izan digute, gai honetan landu behar ditugun esparruek prozesu izaera izan behar dutela, ezin direla soilik ekintza solteak izan.

Ahalegin berezi bat egin behar al da festen esparruan?

Bai. Gauzak aldatu dira, baina oraindik ere pausoak eman behar dira. Errespetuz, poliki eta inor mindu gabe, baina aldaketak eman behar dira. Bestela, gizartearen norabidearen kontra joango ginateke.

GUTUNA

Lanean jarraitzeko indarra zarete

Idatzi honen bidez, Zizurkilgo EH Bilduko kideok eskerak eman nahi dizkizuegu. Gure aurreikuspen onenetan ere irudikatu ezin genezakeen boto kopurura iritsi ginen, maiatzaren 26an. Parte hartze zabalarekin inoiz alderdi batek Zizurkilen lortutako emaitzarik onena eskuratu dugu, 825 botoekin. Ez dugu ukatuko, babes zabal horrek poz handia ematen digu. EH Bilduk zortzi urte daromatza udal gobernuan, eta, zortzi urte eta gero, emaitza horiek lortzeak bereziki pozten gaitu, baina, era berean, emaitza horiek ardura erantsiarekin hartzen ditugu.

Pozik eta harro gaude, baina harrokeriarik gabe. Umiltasunez eta gertutasunez lan egingo dugula agintzen dizuegu. Esan dugu, behin eta berriz, azken asteotan, herrigintzatik gatoz eta herritik gertu lan egiten jarraituko dugu udalean ere. Horretarako badugu kontratu bat: hilabeteotan landu dugun herri programa. Berau izango da gure ardatza hurrengo urteetan. Eta egitasmo eta proiektuak behar bezala garatzeko ezinbestekoa izango dugu zuen guztion parte hartzea.

Saiatuko gara zizurkildar guztien alkate eta zinegotzi izaten, bozkatu gaituztenen eta ez gaituztenena, eta oposizioko alderdiei lanerako deia egiten diegu. Nahi badute, lanean topatuko gaituzte.

Hauteskundeetako emaitzen balorazio lasaia egin eta aurrera begira jartzeko, Zizurkilgo EH Bilduko kideok batzarra egingo dugu ekainaren 12an, asteazkenean, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean. Gonbidatuta zaudete.

EH Bildu Zizurkil

Oihana Iguarani esleitu diote ikerketa kontratua

Mintzola Ahozko Lantegiak, eta EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Euskara eta Ikerkuntza arloko errektoreordetzek esleitutako ikerketa kontratua lortu du

Erredakzioa Amasa-Villabona

Ikerketa kontratua EHUUn gauzatu du Iguarane, Bertsoaren Agenda. Setting-ak bertsoaritzaren diskurtsoan duen eragina proiektuarekin; urtebeteko kontratua da esleitu diotena, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin. Bertso bidezko diskurtsoak zein agenda duen deskribatzea da asmoa, prestakuntza edo entrenamendu unetik jendaurreko azken bat-bateko jardueraraino ikertuz. Txapelketa eta plaza irekiko jarduna behatuko du amasarrak batetik eta, bestetik, bertsolari eta gai-jartzaileen lanketa ezagutzeko inkestak eta sakoneko elkarrizketak baliatuko ditu.

BIPROIEKTU SARI

2.000 euroko bi proiektu sari ere esleitu ditu Mintzola Ahozko Lantegiak eta EHUko Mikel Laboa Katedrak: Jon Gurrutxaga

Urbietaren Nazio-identitatea, nazio-gatazka eta diskurtsoaren bilakaera Bertsolari Txapelketa Nagusian (2001-2017) lanarentzat izan da sarietako bat eta, bestea, Kepa Matxain Iztuetaren Ahozko hizkeraren balioa bertso kanonaren eraikuntzan: Xabier Amurizatik Maialen Lujanbiora (1980-2017) proiektuarentzat.

Gizarte aldaketek eta diskurtsoen bilakaerek bertsoetan nola eragina izan duten aztertuko du Gurrutxagak, bereziki, nazio identitatea eta gatazka aintzat hartuta. Bestalde, nazio gatazka inguruko bertsoetan genero diskurtsoak zer nolako eraldaketak izan duen aztertuko du. Matxainek bertso kanonaren eraikuntzan ahozko hizkerarekin lotutako baliabideen pisua zein den ikertu nahi du eta, horretarako, bertso zehatzei baino gehiago erreparatu nahi dio, bertsoek edukitako harrerari.

BERRIA TALDEAK MARKETIN ESTRATEGIA DIGITALAREN ARDURADUNA BEHAR DU

(Erref:19-MD):

Pertsona hau BERRIA TALDEaren marketing estrategia digitala diseinatu eta kudeatzeaz arduratuko da, eta estrategia horren jarraipenaz eta neurketaz, Talde Estrategikoan parte hartuz eta Taldearen helburuak lortzeko erabakietan eraginez. Estrategia eta negozio ikuspuntua duen pertsona baten bila gabiltza, sormena eta ekimena dituen, antolatua, eta taldea dinamizatzeko gaitasuna duena.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako ikasketak: Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Marketinga edo antzeko ikasketak.
- Marketing digitalako espezializazioa: Social media marketingaren ezagutza, Email marketingarena, eta Web posizionamenduarena (SEO-SEM).
- Analitika eta datuen neurketarako tresnen ezagutza.
- Big Data ikasketak eta ezagutza aintzat hartuko dira, eta horien aplikazioen eskarmentua izatea lehenetsiko da
- Euskaraz ondo jakin (gutxienez EGA maila) eta ondo komunikatzea.
- Aintzat hartuko da aurrez marketing estrategia digitalak diseinatzeko eta garatzeko lanetan aritu izana

Eskaintzen da:

- Berehala lanean hastea.
- Lanaldi osoko lan kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidali curriculum, 2019ko ekainaren 17a baino lehen, '19-MD' erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus

Canok gaur jasoko du 111 Akademia saria Hika txakolindegian

AMASA-VILLABONA // *Fakirra-*ren Ahotza eleberriagatik saritu dute idazlea. 19:00etan bisita laburra egingo dute Hika txakolindegira eta, ondoren, Olatz Prat, Josune Marin eta Joxan Goikoe-txea musikarien emanaldia izango da. Ondoren jasoko du saria Canok. Amaieran, Roberto Ruiz sukaldariak prestaturiko zizka-mizkak dastatuko dituzte.



lazko festan jasotako irudia. ATARIA

Fleming Herri Eskolako festa izango da larunbatean

AMASA-VILLABONA // Egun osoko festa izango da. 09:00etan pala eta esku pilotako txapelketaren finalak izango dira Arratzainen. 11:30ean Bearzana frontoian, mailaz maila, emanaldiak izango dira. Pilotalekuan egingo dute gero bazkaria eta, bazkalostean, 5. mailako gurasoek antolatutako ekintza eta tailerrak izango dira, DJ baten laguntzaz.



Euskara ikasten dutenei, Atariaren urtebeteko harpidetza ordaintzen die Ibarako Udalak. R. CALVO

‘Ataria’ren urtebeteko harpidetza, euskara ikastearen truke

Ibarako Udalak bosgarren urtez ordainduko die urtebeteko kuota euskara ikasten ari direnei; aurten 25 ikaslek egin dute bat egitasmoarekin

Irati Saizar Artola Ibarra

Bosgarren urtez jarraian, Ibarako Udalak TOLOSALDEKO ATARIAren urtebeteko harpidetza ordainduko die, euskara ikasten ari diren ikasleei. Aurten bada berrikuntzarik, gainera: orain arte euskara ikasten ari ziren ibartarrei soilik ordaintzen zieten eta, aurten, ibartarra ez izanagatik, Ibarra lan egiten dutenei eta euskara ikasten ari direnei ere zabaldu diete eskaintza.

Guztira, 25 lagunek jasoko dute, urtebetez, harpidetza doan.

«Euskara sustatzeko eta herri-tarrak euskarara gerturatzeko» egiten duten egitasmoa dela azaldu Tomas Ugaldebere euskara teknikariak. Euskaltegian ikasten dutena handik ateratzea kostatzen zaien horientzat baliagarri ikusten du egitasmoa. «Etxean harpidetza izatea eta irakurketa ohitura handiagoa

hartzea positiboa da, norberaren ikasketa prozesurako», gaineratu du.

Euskaltegiatako materialetatik kanpo erreminta bat eskaini nahi die udalak, erabileran eragina izan dezan: «Ikasle horietako batzuk Tolosan mintzalagunarekin ibiltzen dira, eta material hau erabiltzen dute egitasmo horretarako». Bezperan jasotako ATARIA, hurrengo egunean mintzalagunarengana eramaten

dute, bertan agertzen diren berriak komentatzeko.

Era berean, euskal komunikazio produktuak sustatzea ere helburuetako bat dela azaldu du Ugaldeberek, eta keinu horrekin ATARIA laguntzen jarraitu nahi dute.

Ibarako Udalak ez ezik, ATARIA bera ere pozik dago. «Gure helburuetako bat euskara gizarteratu eta erabilera sustatzea ere bada, eta bat egiten dugu horrelako egitasmoekin», esan du Iban Urdapilleta kudeatzaileak.

Bere aldetik, Ibarako Udalak euskara ikasten ari diren horiei %100 ordaintzeko konpromisoarekin jarraituko dutela azaldu du Ugaldeberek. «Uste dugu nahikoa esfortzu egiten duela ikasle batek, eta ez zaigu iruditzen diruak izan behar duenik, euskara ez ikasteko arrazoia».

Gaur egun 30 ibartar inguru ari dira euskara ikasten, eta gehienak 30 urtetik gorakoak dira. «60 urteren bueltako kua-drilla bat daukagu, bilobekin euskaraz aritzeko gogo eta desioak bultzatuta-edo animatu direnak», azaldu du teknikariak.

ERABILERAN, GORAKADA

Ibarra azken kale neurketa egin zenean, 2015 inguruan, jaitsiera nabarmena izan zela gogora ekarri du Ugaldeberek. Horren aurrean, hainbat egitasmo martxan jartzea erabaki zuten eta, pixkana, baina erabilerak gora egin duela nabaritu du. 30-50 urte artean dituztenen egoerak kezkaten ditu gehien: «Beraien artean erdaraz egiten dute askok, eta haurrak daudenean euskaraz». Hori aldatzeko lanketa bat egitea beharrezko ikusi du teknikariak, eta kale erabileraren neurketa berri bat egiteko asmoa azaldu dute.

Irailetik aurrera merkatarien artean euskara sustatzeko kanpaina bat ere martxan jarriko dute.

Ekainaren 14a izango da bozetoak aurkezteko azken eguna

Ibarako San Bartolome jaietarako programaren azala eta kartela aukeratzeko lehiaketa amaitzean da

Erredakzioa Ibarra

2019ko sanbartolomeak gerturatzeko ari direla eta, jai egitarauko marrazkiak aukeratzeko lehiaketa egiten ari dira Ibarra. Gaia libre da, baina aurkeztutako lanek *Sanbartolomeak 2019* esaldia eta Ibarako armarrak edo hori jartzeko lekua, behintzat, eduki beharko dituzte. Ezin da egilearen izenik edo bestelako adierazpenik idatzi, marrazkian bertan.

Ibarra bizi edo herrian bertan ikasten duten hurrek izango dute lanak aurkezteko aukera. Bi kategoriatan banatu dituzte: LH1etik LH6rako ikasleak eta DBH1ekoak eta DBH2koak. Elabrazio teknika librez egindako lanak aurkeztu behar dira. Marrazkien formatuari dagokionez, A4 neurrikoak izan behar dute eta orientazio bertikala edukiko dute.

Bozeto gutun-azal itxi batean entregatu behar da eta egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, jaiotze data, ikastetxea eta kurtsoaren datuak jarri behar dira.

Lanak ekainaren 14a baino lehenago entregatu behar dira, kultur etxean. Abuztuan jakinaraziko dute, festa batzordeak izendatuko duen epaimahaiak hartuko duen erabakia, eta irabazleei aurretik jakinaraziko diete.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Denboraldi amaiera bikaina Danenarentzat, bi taldek igoera lortuta

Talde nagusiak preferente mailan jokatu du, eta kadete mailako mutilek historia egin dute, maila gorenera iritsiz

Imanol Garcia Landa Zizurkil

Danena kirol elkartearentzat emozioz beteriko denboraldi amaiera izaten ari da. Talde nagusia eta kadete mailako mutilak mailaz igo dira. Datorren denboraldian futboleko erregional preferente mailan izango dira talde nagusiko jokalariek, eta kadeteak talde onenek jokatzen duten Euskal Ligan lehiatuko dira.

Talde nagusiak etxean jokatu zuen, aurreko larunbatean, itzulerako partida eta, Urkiri 2-2 egin ondoren, igoera lortu zuten. Aurretik, joanekoan, 0-2 irabazi zuten zizurkildarrek. «Orain dela lau urte etorri zen belaunaldi bat taldera, eta hasi ziren helburuak jartzen, eta iaz igotzeko zorian izan ginen», esan du Josu Sarasola klubeko lehendakariak. «Disgustu horren ondoren, aurtan berriro saiatu dira, eta hasieratik oso ondo ibili dira eta, nahiz eta azkenean pixka bat kostatu zaigun, eta igoera fase baten bidez izan, helburua lortu dugu. Datorren urtean preferentean izango gara, eta horrek poz handia suposatzen du jokalarientzat, entrenatzaileentzat, zuzendaritzako kideentzat eta, orokorrean, zale guztientzat».

Aurreko larunbatean Elbarrena futbol zelaia goraino bete zen. «Inoiz ez ditugu harmailak horrela ikusi. Harmaila berriak ditugunez, ondo etorri zen jende guztia sartzeko», esan du Sarasolak. Hain justu, larunbatean bertan elkarteko eguna ospatu zuten eta, Joxe Arregi plazan bazkaria egin ondoren, talde nagusia animatzera joan ziren.

DANENA, LEHEN MAILAKO HARROBIEN PARE

Kadete mailako mutilek lorpen historikoa egin dute. «Urteko ezusteko handiena izan da, ez bakarrik Danenarentzat; agian Gipuzkoan izan den ezusteko handiena izan da», esan du Sarasolak. «Horrelako herri txiki bateko talde bat kadeteen ohorezko mailan izatea ikusita zegoen,



Talde nagusiko kideak, igoera ospatzen. ATARIA



Kadete mailakoak Euskal Ligan ariko dira datorren denboraldian. ATARIA

baina, Euskal Ligako mailara igotzea ez dakit norbaitek ikusi duen. Meritu handia du aurtan egin dutenak». Gainera, kontuan izan behar da, mailaz bi urte segidan igo dela taldea. Aurreko denboraldian kadeteen lehen mailan zegoen, eta ohorezkora igo zen, eta aurtengo denboraldian Euskal Ligara igotzea lortu dute. «Sekulako lana egin dute, eta oso harro gaude beraiez», esan du Sarasolak.

Euskal Liga kadeteetan dagoen mailan altuena da. «Hemezortzi talde daude, maila horretan, eta bertan daude, esaterako, Real, Athletic, Eibar... Hau da, lehen mailako taldeen harrobiko taldeak», esan du Sarasolak. «Gero Bizkaiko talde indartsuak daude, eta baita Gipuzkoakoak ere, tartean Tolosa. Euskal Herri mailan dauden talde indartsu eta famatuena. Kontuan izateko, egun Realaren talde nagusian dagoen Ander Barrenetxea

orain dela bi urte maila horretan ari zen lehiatzen. Beraz, Elbarrenatik pasatuko dira jokalaria asko, agian, hemendik bi, hiru edo lau urtera, lehen mailan ikusiko ditugunak».

Datorren denboraldiari begira, helburu nagusia «lehiatzea» izango dela esan du Sarasolak: «Taldea osatu, aurpegia ahalik eta hoberen emateko, aurkariei gauzak zailak jarri eta, gero, etortzen dena emaitzetan etorriko da, eta denboraldi bukaeran ikusiko dugu zein izango den gure lekua sailkapenean».

Hasiera batean, kadete mailako taldearen helburua ohorezko mailan mantentzea zen. «Kontuan izan behar da, taldearen herena lehen urtekoak zirela», esan du Sarasolak. «Hasi ginen partidak irabaziz, pixkana-pixkana, eta ez genuen pentsatuko igotzeko aukera izango genuenik. Baina, azkenean, aukera izan dugu eta baita lortu ere».

Sekulako denboraldia egiten ari dira



Harmailetatik

Juan Carlos Martija
Tolosa CF, Euskal Liga

gande goiza eta Gasteizera joateko prest, beti bezala alaitu eta umore onarekin. Iritsi eta fresko, gero eguzkiak berotu zuen.

Partida hasi eta gure neskak ondo kokatuta, planteamendu ona gure entrenatzaileek. Berehala, jokaldi eder batean, Maria Martijaren gola eta beste bi aukera ederrak, markagailua handitzeko. Lehen zatian gehiago izan ginen.

Atsedendia eta Benitoren hamaiketako ederki sartu zen, egiten zuen giroarekin... Edaria ere fresko, eta animoak gorantz, irabazten baikinodaz.

Bigarren zatia hasi eta, zorigaitzeko jokaldi batean, gure atean sartu genuen gola, eta berdinketa. Beraiek gora etorri ziren eta beste bi gol sartu zizkiguten; bukaeran beraien laugarrena gertu ikusten genuen, baina, Zuriñek urruntze batean, gola sartu zuen. 3-2 bukaerako emaitza, eta kanporaketa irekita oraindik.

Okerrena Maddi Garikanoren lesioa, belaunean min hartu zuen, eta frogan zain gaude zer duen jakiteko. Animoak hemendik.

Beraiek 2. mailako talde indartsua direla erakutsi zuten; 8. gelditu dira aurtan. Gureak maila ematen ari dira.

Larunbatean, 16:30ean, Berazubín itzulerakoa. Itxaropentsu gaude, eskatzen hasita finalera iritsi nahi dugu, seguru baietz; hemendik ez dira bizirik aterako.

Sekulako denboraldia ari dira egiten, ez dugu bukatu nahi, noizbait etorriko dira ezurteak... Beherakadak.

Autobusean etxerantz abestuz, ze giroa.

Larunbatean denok Berazubira, gure neskek zalegoaren animoekin, kanporaketari buelta emango diote.

P.D.: Berriro xanpaina freskatzan jarria dut.

Aupa Tolosa Trakatra!

Belabietakoak, Getxon eta Euskadikoan

Erredakzioa Ibarra

Belabieta Kirol Klubeko gimnastek aurreko bi asteburuetan beste hainbeste probetan parte hartu dute. Horietako bat Euskadiko Amateur Txapelketa izan zen, eta aipagarria da Inko Oruesagastik lortutako domina, mazoeekin 3. sailkatu baitzen, kadete A mailan, orokorrean 9. postua lortuz. Kadete B mailan, Olaia Plazasek uztaiaren 12. eta mazoeekin 17. bukatu zuen txapelketa, eta Olaia Garziarenak 17. uztailaren 15. mazoeekin. Taldeka, jubenil A mailan Belabietako taldeak 8. postua eskuratu zuen, kadete K1ek 5.a eta kadete K2ak 22.a. Belabietako entrenatzaileak oso pozik azaldu dira gimnastek egindakoarekin.

Beste proba Getxo torneoaren VI. edizioa izan zen. Denboraldiari amaiera bikaina emateko kadete K1 taldea torneoaren txapeldun bilakatu zen. Bestalde,

kadete A mailan, Inko Oruesagastik 2. postua lortu zuen uztaiarekin, eta Olaia Garziarenak 3.a kadete B mailan. Jubenil A mailan, Laia Ortiz 3. sailkatua izan zen zintarekin.

Hurrengo topaketa Belabieta Kiroldegian izango da. Ekainaren 14an kurtso bukaerako jaialdia egingo dute, eta bertan eskualdeko 140 gimnastak parte hartuko dute.

UDAKO KANPAINA

Bestalde, Belabieta Kirol Klubak martxan jarri du Uda Kanpaina. Ekainaren 17tik uztailaren 5era Ibarako kiroldegian izango dira saioak, eta 5 eta 16 urte bitarteko neska mutilei zuzenduta dago. Hasi berriak nahiz alde aurretik gimnastikan ibili direnak parte har dezakete. Informazio gehiago nahi duenak belabieta_ke@yahoo.es helbidera idatz dezake, edo 657 71 95 33 telefono zenbakira deitu.



OSTEGUNA, 2019KO EKAINAK 6
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L. ko kideak:



Bertan, bertakoa eta bertakoek prestatzeko

Tolomendi elkarteak hainbat saio eskaintzen ari da, eskualdeko ostaluen kudeaketa egokia izan dadin; Altzon izan da azkena

Erredakzioa Altzo

Tolomendi Landa Garapen Elkartek, HAZI fundazioarekin elkarlanean, ekin die eskualdeko ostaluetan bertako produktuen erabilera sustatzeko prestakuntza saioei. Altzon izan zen hirugarrena, joan den asteartean, eta azalpen teoriko nahiz praktikokoak uztartu zituzten lehen modulu horretan, Sonia Tapiaren eta Roberto Ruizen laguntzaz.

Formakuntza hori Tolomendik berriki osatutako azterketa baten ondorio da: landa garapen elkartek eskualdeko ostaluen funtzionamendua izan zuen ikergai, eta haien kudeaketa egokia bermatzeko proposamena egin zuen, besteak beste, bertako ostaluetan bertako produktuak kontsumitzeko, eta ostalarien eta saltzaileen harremanak sortzeko nahiz hobetzeko.

Horrela, Altzoko saioaren ondotik, Tolomendik laugarren eta azken hitzordua eskainiko die, interesa duten ostalariei, datoren udazkenean.



Altzoko elkartearen egin zuten prestakuntza saioa, asteartean. TOLOMENDI

OSTEGUNA 06

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Harri jaia Bedaion. Meza, ha-maiketakoa, bertsolariak eta trikitilariak. Ondoren, bazkaria.

Amasa-Villabona. 111 Akademiaren sari banaketa. Harkaitz Canok Hika txakolindegian jasoko du saria, *Fakirren* ahotseleberriagatik.

Tolosa. Kontzertua Bonberenean: Flowers & Shelters. Sarrera: 8 euro.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, slasaldia helduekin, Joxemi Saizarrekin Tolosaldeko pertsonaia eta Joxemari Iturralderekin astero liburu bat.

11:00. Hamaiketakoa. Anoetalea Villabona Aiztondoko berriak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

13:00. Erakutsiz ikasi. Tolosaldea Lanbide Heziketa.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Gozoko onena.

20:00. Erakutsiz ikasi. Tolosaldea Lanbide Heziketa.

24 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Hiri baratzea

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ajoarrieroa (Hodei Magoa)
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.
Eduarne Mugica Martinez
Euskal Herria kalea, 3
Telefonoa: 943 67 09 15

TOLOSA. Gauekoa.
Lourdes Azpiroz Galarza
Amarotz auzoa, 9
Telefonoa: 943 67 51 18

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Giro lasaia berriz. Ostarteak; egun amaieran zerua estalita. Euririk ez. Termometroek gora, erdiko orduetan: 22-24 gradu.

Bihar. Giro nahasia. Gauean sartuko den fronte baten hodeitza; tantaxkaren bat edo beste. Goizean atertu eta ostarte batzuk. Iluntzerarte zaparradaxkaren bat, ezer gutxi. Gauean atertu eta ostarte zabalak irekiko dira. 17-19 gradu erdiko orduetan.

LIZARDI
inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behe
Tolosa 943 65 11 22



250.000€

Tolosa: Rondilla kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea itxia.



230.000€

Tolosa: San Francisco: 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Trastelekua.



177.000€

Tolosa: Bizkai kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.